

GEOGRAFIA ETA HISTORIA. DBH 1. PROGRAMAZIO LABURRA

| | | | | | |
|-----------|---|-------|-------|------------|-----------|
| Irakaslea | Asier Velez de Mendizabal Mikel Soto Nolasco | Maila | DBH 1 | Ikasturtea | 2021-2022 |
|-----------|---|-------|-------|------------|-----------|

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Derrigorrezko irakasgaia. Sarrerako urtea da eta ikasleek, Institutura heldu berriak izanik babes eta jarraipen bereziak merezi dituzte. Talde bakoitzean asteko hiru ordu izanen dugu. Ikasturtean zehar, berrikuntza pedagogikoaren ildotik eta Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuari jarraituz, "Iturrama Berdea" proiektua gauzatuko da.

ONARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

| | | | | | | | | | | | | |
|--|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|----|----|
| 1) Hizkuntza komunikazioa. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarriko gaitasunak. | 1 | 2 | | 4 | | | 7 | | | | | |
| 3) Gaitasun digitala. | 1 | 2 | 3 | 4 | | 6 | 7 | | 9 | | | |
| 4) Ikasten ikastea | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 5) Gaitasun sozial eta zibikoak. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 6) Ekimena eta ekintzaitza. | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | | 9 | | | |
| 7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak. | 1 | 2 | 3 | 4 | | | 7 | | | 10 | 11 | 12 |

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

EDUKIAK

[DBH CURRICULUMA](#)

IKASGAIKO EDUKIAK

Geografia

Lurra eta natura-baliabideak: adierazpen grafikoa, erliebea, klimak, paisaiak, kontinenteen azterketa fisikoa, gizakiak eta ingurunea eta natura arriskuak.

Historia

Historiaurrea eta Antzinaroa: lehenengo zibilizazioak,
Grezia
Euskal lurraldea Aintzinaroan

ITURRAMA BERDEA PROIEKTUA

Ikastetxeko Berrikuntza Proiektuen arteko bat da **Iturrama Berdea**, ikasgai honetan Iturrama Berdeari lotutako proiektu edo zeregin bat burutuko da.

Iturrama Berdea proiektua Geografiako gaietan aplikagarriagoa da, bereziki 3. gaian.

SKOLAE

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

[DBH CURRICULUMA](#)

| 1. Ebaluazioa | | 2. Ebaluazioa | | 3. Ebaluazioa | |
|---------------|-----------|---------------|-----------|---------------|-----------|
| Orduak | Unitateak | Orduak | Unitateak | Orduak | Unitateak |

| | | | | | |
|---|--------------------------------|---|-------------------------|---|-----------------------------------|
| 7 | 1. Lurra eta haren irudikapena | 7 | 5. Lurreko paisaiak | 8 | 10. Ibaietako zibilizazioak |
| 7 | 2. Lurreko erliebea | 7 | 6. Kontinenteak | 8 | 11. Grezia |
| 7 | 3. Urak | 7 | 7. Nafarroako geografia | 8 | 12. Euskal lurraldea Aintzinaroan |
| 7 | 4. Klima | 2 | 8. Historiako sarrera | | |
| | | 8 | 9. Historiaurrea | | |

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

DBH-ko lehen mailan IK/KI metodologia aplikatuko da ahal den guztietan, eta ikasleak 4ko taldeetan taldekatuko dira.

- Metodologia orokorra: Aktiboa, parte-hartzailea, eraikitzailea. Ezaugarriak: induktibo-deduktiboa, integratzailea. Osagaiak: azalpen bidezko metodologia, ekintza bidezko metodologia, ikerketa bidezko metodologia.
- Baliabideak: Testuliburua (Santillana argitaletxea), irakasleak prestaturiko materiala (fitxak, multimedia aurkezpenak, bideoak, aldizkariak...). Chromebook-a.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

Nota osatzeko hiru atal bereziko dira:

- Azterketak: ikasturtean zehar egindakoez notaren % 60 osatuko dute.
- Talde lan bat egin behar da ebaluaketa bakoitzeko, eta honen balioa %20koa izango da.
- % 10 eguneroko lana (ariketak, laburpenak, koadernoaren txukuntasuna...).
- % 10 jarrera, portaera (portaera egokia, errespetua, puntualtasuna, parte-hartze aktiboa...) eta euskararen erabilera.

Ebaluazio bakoitza gainditzeko nahitaezkoa izango da eguneroko lanaren atala (%10) eta jarrera, portaera eta euskararen erabileraren atala (%10) gainditzea.

Ebaluazioa gainditzeko gutxienez 5 atara behar da.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENKOAK

Borobiltzea:

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Azken nota hiru ebaluaketetan lortutakoaren batez bestekoa izanen da, baldin eta guztietan 5 baino gehiago atara den.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazio bat gainditzen ez denean, irakasleak prestaturiko berreskurapenerako plangintza proposatuko dio ikasleari. Plangintza honek azterketa edo lan forma eduki dezake, eta finkatu gabe dauden edukiak lantzeko helburua izango du.

Nahikotasun froga: Kurtso amaieran gainditu gabe dauden edukiak ebaluatuko dira. Berreskurapenaren nota gehienez 6 izango da. Ikasleak berreskurapen plana 5 eta 7 arteko kalifikazio batekin gainditzen badute, beraien nota 5 izango da. 7 baino gehiagoko kalifikazio bat lortuz gero, bere kalifikazioa 6 izango da.

Ez ohiko deialdia: Gainditu ez diren edukiei buruzko azterketa izango da, irakasleak emandako jarraibide edo plangintzaren arabera. Deialdi honetan, gehienez ere bosteko kalifikazioa eskuratu ahalko da, azterketan nota altuagoa lortuta ere. Berreskurapenaren nota gehienez 5 izango da.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.